

1.985



LEITZA / 85

**Tiburcio Donearen Festak
Abuztuak 10-15**



PLAZAOLA

C.D. AYRRERA K.E.



LEITZA

**BAZKIDEEK,
DANTZARIK,
TXARANGAK eta
FUTBOLISTAK**

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Herritar eta bisitari guztiei

**SALA DE FIESTAS
DISCOTECA**

DISCOTHEQUE



BOITE

**IZAR BERRI
LEITZA**

Egun hauetan irekita
2tatik 7arte

Durante estos días abierto
de 2 a 7 de la mañana

IZAR-BERRI DANTZALEKUAK
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Zuzendarintza
Dirección



ETXE - TRESNAK

ARGI-INDAR INDUSTRIALA
HIFI - TELEBISTA - BIDEO
BIDEO-KLUB
RADIO eta TELEBISTEN KONPOKETA
TELEBISTARAKO ANTENA JARTZEA

ELETRICIDAD INDUSTRIAL
T.V. - HIFI - VIDEO
VIDEO-CLUB
REPARACION DE RADIOS - TELEVISORES
INSTALACION DE ANTENAS DE T.V.

Urrutizkinak: 51 02 08 - 51 01 81

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

LEITZA (NAFARROA)

AGURRA

**Herriko festak bizitzera prestatzen
ari zareten leitzar guztiok:**

**Urtero bezela ailegatu zaizkigu eguneroko
nekaldi eta agresibitateak gainditzeko hain
beharrezko ditugun festa egun hauek.**

**Denen arteko elkartasuna eta alaitasuna
izan daitezela nagusi egun berezi hauetan,
eta gure euskal izaerari dagozkion berezitasunak:
euskara, ohitura zaharrak eta abar.**

**Gure oroitzapen berezia festa hauetan
herritik kanpo izatera behartuta daudenentzat.**

Festa onak izan!



ABUZTUAK

4

IGANDEA, "UMEEN EGUNA"

Goizeko 8—etan: Diana.

Goizeko 9—etan: Zezenak plazan.

Goizeko 10,30—etan: Meza Nagusia, ondoren plazan "ASKETA" abes-
taldeak kantatuko du.

Goizeko 12—etan: Pilota partiduak, ondoren: Umeentzako jokoak.

Arratsaldeko 6—etan: Umeen zezen festa.

Arratsaldeko 7—etan: Dantzari TTIKIEN saioa eta ondoren bomba
japoniarrak.

Arratsaldeko 8—etan: Kalejirak ARTADI txarangarekin.

Gaueko 12—etan: Pilotalekuan dantzaldia EGAN taldearekin.

4 DE AGOSTO, DOMINGO, "DIA DEL NIÑO"

A las 8 de la mañana: Diana a cargo de los txistularis.

A las 9 de la mañana: Embolados para los niños.

A las 10,30 de la mañana: Misa Mayor, a continuación la Coral Infan-
til ASKETA cantará en la plaza.


A las 12 de la mañana: Partidos de pelota, a continuación juegos in-
fantiles.

A las 6 de la tarde: Embolados para los niños.

A las 7 de la tarde: Actuación de los dantzaris TTIKIS y bombas ja-
ponesas.

A las 8 de la tarde: Txistu en la plaza y kalejiras con la txaranga
"ARTADI".

A las 12 de la noche: Verbena a cargo del grupo EGAN.





ABUZTUAK

10

LARUNBATA, "FESTA BEZPERA"

Arratsaldeko 6—etan: Ezkilaz jotzea eta etxafuegoak botatzea festeei hasera emanez.

Ondoren: Txistulariak eta ARTADI txaranga, herrian barrena kalejira joaz.

Arratsaldeko 7,30—etan: Dantzaldia DIAMANTES taldearekin.

Gaueko 12—etan: Berriz dantzaldiak DIAMANTES taldearekin.

10 DE AGOSTO, SABADO, "VISPERA DE FIESTAS"

A las 6 de la tarde: Inicio oficial de las fiestas con volteo de campanas y disparo del cohete. **A continuación** kalejiras a cargo de los txistularis y txaranga ARTADI.

A las 7,30 de la tarde: Bailables amenizados por los DIAMANTES.

A las 12 de la noche: Nueva actuación de los DIAMANTES.

ABUZTUAK

11

IGANDEA, "TIBURTZIO DONEAREN EGUNA".

Goizeko 7,30—etan: Dianak, txistulariek eta ARTADI txarangak joak.

Goizeko 9—etan: Entzierro eta zezenak plazan.

Goizeko 10,30—etan: Meza Nagusia.

Goizeko 12—etan: AURRERAKO Ezpatadantzariak plazan.

Ondoren: Pilota partidua plazan:
LUJAMBIO — IPARRAGUIRRE
TAITA — TXOPERENAREN aurka.

Arratsaldeko 5—etan: Zezenak plazan.

Arratsaldeko 6—etan: Angel Aldutzin OMENALDIA herrialde ez berdin jotan erakusketa.

Arratsaldeko 6,30—etan: Pilota lekuan ESKULARI antolatutako pilota partiduak.

Arratsaldeko 7,30—etan: Dantzaldia DIAMANTES taldearekin.

Gaueko 11,30—etan: Dantzaldia DIAMANTES taldearekin.

11 DE AGOSTO, DOMINGO, "FESTIVIDAD DE SAN TIBURCIO"

A las 7,30 de la mañana: Diana a cargo de txistularis y ARTADI.

A las 9 de la mañana: Encierro y embolados en la plaza.

A las 10,30 de la mañana: Misa Mayor.

A las 12 de la mañana: Actuación de los Ezpatadantzaris del C. D. AURRERA. A continuación: Partidos de pelota.


A las 5 de la tarde: Vaquillas.

A las 6 de la Tarde: HOMENAJE a Angel Aldutzin, exhibición de jotas.

A las 6,30 de la tarde: Partidos de Pelota organizados por ESKULARI.

A las 7,30 de la tarde: Bailables amenizados por los DIAMANTES.

A las 11,30 de la noche: Bailables amenizados por los DIAMANTES



ABUZTUAK

12



ASTELEHENA

Goizeko 7,30—etan: Dianak, txistulariek eta ARTADI txarangak joak.

Goizeko 9,30—etan: Entzierroa eta zezenak plazan.

Goizeko 12—etan: Euskal Kirolak Plazan "PENTHATLON" gisan:

OLASAGASTI — ARROSPIDE

MENDIZABAL — LARRETXEAREN aurka.

Ondoren: Kalejirak Inkansables txarangarekin eta Buruhaundiak.

Arratsaldeko 5—etan: Zezenak plazan.

Arratsaldeko 6—etan: Aurrerako dantzaldiak plazan. Ondoren bomba japoniarrak umeentzako.

Arratsaldeko 7,30—etan: Dantzaldiak JOSELU ANAIAK Taldearekin.

Gaueko 11,30—etan: Dantzaldiak JOSELU ANAIAK Taldearekin.



12 DE AGOSTO, DOMINGO

A las 7,30 de la mañana: Dianas.

A las 9,30 de la mañana: Encierros y vaquillas.

A las 12 de la mañana: Deporte rural, modalidad "PENTHATLON".

OLASAGASTI — ARROSPIDE

contra

MENDIZABAL — LARRETXEAREN

A continuación: Kalejiras con la Txaranga "INCANSABLES" y Cabezudos

A las 5 de la tarde: Vaquillas.

A las 6 de la tarde: Dantzaris del C. D. AURRERA y bombas japonesas.

A las 7,30 de la tarde: Baile a cargo de JOSELU ANAIAK en la plaza.

A las 11,30 de la noche: Bailables a cargo de JOSELU ANAIAK.....

ABUZTUAK

13

ASTEARTEA

Goizeko 7,30—etan: Dianak.

Goizeko 9,30—etan: Entzierroa eta zezenak.

Goizeko 11,30—etan: Laisterkariak:

ALDUTZIN ANAIK (LEITZAKOAK).

M. REKALDE — M. AZPIROZen aurka (ARRUIZKOAK).

Ondoren: Kontzertua plazan: Lesakako "Banda Musike".

Arratsaldeko 5—etan: Zezenak.

Arratsaldeko 6—etan: Leitzako Ingurutxo eta bomba japoniarrek.

Arratsaldeko 7,30—etan: Amazabal Pilotalekuan, ESKULARIK antolatutako pilota partiduak.

Arratsaldeko 7,30—etan eta 11,30—etan: Dantzaldaiek JOSELU ANAIK Taldearekin.

13 DE AGOSTO, MARTES

A las 7,30 de la mañana:

13 DE AGOSTO, MARTES

A las 7,30 de la mañana: Diana a cargo de los Txistularis.

A las 9,30 de la mañana: Encierro y Vaquillas.


A las 11,30 de la mañana: Korrikolaris y a continuación concierto en la Plaza: "Banda de Música" de Lesaka.

A las 5 de la tarde: Vaquillas.

A las 6 de la tarde: Ingurutxo de Leiza y bombas japonesas.

A las 7,30 de la tarde: Partidos de pelota profesionales, organizados por ESKULARI.

A las 7,30 de la tarde y 11 de la noche: Bailables a cargo de JOSELU ANAIK.



ABUZTUAK

14

ASTEAZKENA

Goizeko 7,30—etan: Dianak.

Goizeko 9,30—etan: Entzierroa eta zezenak.

Goizeko 11—etan: AURRERA - GURATZ MENDI, V Saria. Herriko ziklista afizionatuentzat.

Goizeko 12,30—etan: Sagardo Lehiaketa plazan, KORNIETA Elkar-teak antolatuta. Sagardoa dohain nahi duten guztientzat.

Arratsaldeko 5—etan: Zezenak plazan.

Arratsaldeko 6,30—etan: Bertsolariak: Lasarte, Agirre. Iñaki Perurena eta Mikel Saralegi Harrijasotzen. Aizkor Kross: Saralegi Anaiak.

Ondoren: Dantzaldia AKELARRE taldearekin.

Gaueko 12—etan: Dantzaldia AKELARRE taldearekin.

14 DE AGOSTO, MIERCOLES

A las 7,30 de la mañana: Dianas.

A las 9,30 de la mañana: Encierro y vaquillas.

A las 11 de la mañana: V Trofeo AURRERA - GURATZ MENDI de Ciclismo.


A las 12,30 de la mañana: Concurso de Sidras en la plaza, se repartira sidra. Organiza KORNIETA.


A las 5 de la tarde: Embolados.

A las 6,30 de la tarde: Bertsolaris: Lasarte, Agirre. Harrijasotzailes: Iñaki Perurena y Mikel Saralegi. Prueba Rural: Hermanos Saralegi.

A continuación: Bailables con la orquesta AKELARRE.

A las 12 de la noche: Nueva actuación de AKELARRE.





ABUZTUAK

15

OSTEGUNA, "EZKONDUEN EGUNA"

Goizeko 7,30—etan: Dianak, Txistularik eta ARTADI Txarangak joa.

Goizeko 9,30—etan: Entzierroa eta zezenak.

Goizeko 12—etan: Pilotarik: L. ZUBITUR - M. ETXARRI, E. KANFLANKA - B. ARIZTIMUÑON aurka. Eta ondoren Bertsolarik: MENDIZABAL y TELLERIA.

Arratsaldeko 2,30—etan: AURRERAKO Bazkideen Bazkaria Elkartean. Bertsolariak ere izanen dira txartelak Txoko Taberna Salgai.

Arratsaldeko 6—etan: Ezkonduen entzierroa eta zezenak.

Arratsaldeko 7—etan: Ezkonduen Ingurutxoia eta ondoren Dantzaldia XIRIMIRI taldearekin.

Gaueko 11,30—etan: Berrero ere XIRIMIRI taldea.

15 DE AGOSTO, JUEVES, "DIA DE LOS CASADOS"

A las 7,30 de la mañana: Dianas.

A las 9,30 de la mañana: Encierro y embolados.

A las 12 de la mañana: Partidos de pelota (Casados) y a continuación Bertsolaris.

A las 2,30 del mediodía: Comida de Socios en el AURRERA, con actuación de los Bertsolaris.

A las 6 de la tarde: Encierro de Casados y vaquillas.

A las 7 de la tarde: Ingurutxo de los Casados y a continuación bailables a cargo del grupo XIRIMIRI.

A las 11,30 de la noche: Nuevamente bailables a cargo de XIRIMIRI.

OHARRAK: 1- **INKANSABLES** Txarangak egunero alaituko ditu herriko bazterrak eguardi, arratsalde eta gauean.

2- Egunero eguardian Buruhaundiak herriko kaletan ibiliko dira Txarangakin.

3- Udala ez da kargu-eginen zezenetan gertatzen diren istripuetaz, min hartzen dutenek beren gogoz parte hartzen baitute.

4- Egitaraua, borondatearen gain, Udaletxe eta tabernetan zabalduko da.

AVISOS: 1- La Txaranga los **INKANSABLES** animarán el pueblo todos los días al mediodía, tarde, noche y después del Ingurutxo nocturno.

2- Todos los días al mediodía los Cabezudos recorrerán la Villa acompañando a la Txaranga.

3- El Ayuntamiento no se hace cargo de los accidentes que ocurran en las vaquillas, puesto que los participantes lo hacen voluntariamente.

4- El Programa de Fiestas se podrá retirar a cambio de la voluntad, tanto en el Ayuntamiento como en los Bares.





PLAZAOLA

LEITZAKO ALDIZKARIA

7 ZENBAKIA



LAGUNTZAILEAK:

*M. Jesus Artxikonekoa
Miren Irurtia
Pontxito Irurtia
Patxi Perurena
Joan Mari Beloki
Leitzako Gestora
Astaitz
Garbiñe Sagastibeltza
Aurrera K.E.
Demetrio Salbarredi
Gotzone Sestorain*

ARGAZKIAK:


Ulazia

MARRAZKIK:

K. Fagoaga

BERRI POZGARRIA

Donostiako udalak antolatuta
Gazteen XVIIIgarren Olerki Txapelketan,
Garbine Sagastibeltzak lortu du lehendabiziko saria.
Sari hau 25.000 pezetatakoa izan da.
Gure herritar gazte honek,
oraintxe bukatu ditu COU eta Selektibitatea.
Baita Euskarako azterketa nagusia ere gainditu du Garbinek.
Zorionik beroena hainbat saiatu den ikasle honi.
Askotan, Garbine!



Gau ilunean

ihesari eman zion.

Etxeko karraxietatik
aldendu nahiean
burrukak, gorrotoak, ezinikusiak
ahaztu nahiean
hiri handiaren kaletan galdu zen.
Barnean zeramatzan mamu eta
fantasmak uxatuko zituenaren bila...
Alexen bila...
Orain dela urte bete Iruñako geltokian
agurtu zuenaren bila.
Ordutik, edozein kale ertzetan itxaroten zuen
haren irrifar alaitsua, begi urdinak,
eta esku beroak topatuko zituela
bere momentu bakartiak bete zitzaten.
Alexekin bizitako lipar goxoaz oroituaz
iragarki argitsuen artean zihoan.
Apirileko egun euritsu hartan bezala...
bien arazoak baztertuz, mundua ahaztuz,
kolore berriak asmatuz, sentsazioz betetzen
unibertso partikular bat asmatu zuten,
laztanen unibertso goxoa,
bi mundu bakartien batasuna,
maitasunaren garaiera...
Eta gaur, noiz baitekoan,
begi lagunen dizdira
auteman zuen gauaren beltztasunean
eta malkoen artetik argia ikusi zuen
berriro... bat batean...
Egun senti berri
baten jabe
izan nahi nuke.
Hik, agian, ez duk ulertuko,
hire munduan sarturik
aurkitzen haiz.
Hi pozik bizi haiz,
Ruper Ordorikaren musika
eta anburgesa pare bat nahikoak dituk
eguna kontsumitzeko.
Eta biharko eguna?
Bost axola zaik!
Baina nik zer edo zer
behar dut,
hire mundu plastifikatu
honek ez nau asetzen
ulertzen duk ez da?...
Eta trena badoa
karriletik... mantxo... mantxo...
Nire azken begirada hiretzat duk,
zigarro rubioaren
kearen atzean geldirik
gelditzen haiz,
urruntzen haiz...
Eta ni, nire egun senti
horren bila abiatu nauk...
Barkatuko ote diak
egunen batetan?

LEITZA 1984

<u>DETENTZIOAK</u>	<u>NOIZ</u>	<u>ASKATUAK</u>	<u>KONDENA</u>
Joxemiel Perurena	Urriaren 26ean	27an	25.000 pzta. fiantza
Mikel Azpiroz	" "	"	Kargurik gabe
Kandi Ugal	" "	"	15.000 pzta. fiantza
Mikel Huarte	" "	"	Kargurik gabe
Jose Jabier Zabaleta	" "	"	" "
Juan Zabaleta	Abenduaren 6ean	7an	Kargurik gabe
Miren Alduntzin	" "	"	" "
Inazio Ariztimuño	" "	"	" "
Nati Zubilaga	" "	"	" "
Luis Miguel Nieto	" "	"	" "
Pakita Alduntzin	" "	"	" "
Patxi Mujika	" "	"	" "

Azken zazpi hauei akusazioa "Colaboración directa con bandas terroristas" zen. Mikel Huarteri bala bat sartu zioten; ondoren alto eman eta beste lagunak detenitu.

Juan Zabaleta eta Miren Alduntzinen etxea erregistratu zuten.

Nati eta Inazioaren etxea ere miatu zuten, Natiri tortura sikologikoak egin zizkieten.

Nietori etxea miatu eta torturak egin. Salatu zituen juezaren aurrean, bañeran bustitako arropa bertan zela gehituz, eta Xabi Garmendiak bustita ikusi zuela.

Pakita eta Patxiri etxea miatu, atea petardoz txikituta utzi, armarioak hautsi. Eskaileretako kristal guztiak eta beste bost auzoen atek hautsi.

Pakitak torturak salatu zituen Iruñean eta Burgosen forentseari, belauneko zauria eta besoko ubelduak erakutsiz.

Patxik forentseari ubelduak erakutsi zizkion Iruñean. Burgosen jueza eta forentseari erakutsi ondoren, beldurtu zen (leihatila batetik polizi bat aditzen ari zela ikusi bait zuen), eta papera hautsi zuen. Madrilen forentseari erakutsi zion. Azken komisariako egunetan pomada eta masajeak ematen zizkieten estaltzeko. Audientzian juezaren aurrean torturak salatu zituen.

* * *

Zapalkuntzari erantzuna Leitzan, Euskadi guztian bezala, aspaldiko haundiena izan da.

Amnistiaren asteen: Hiru hitzaldi bideoarekin (20-30 lagun), koadro erakusketa, entzerrona (20 lagun).

Pestetan presoan laguntzarako barraka jarri, 100 lagunek parte hartuz serbitzen.

Nikaraguako diapositibak eta hitzaldia "Comité de solidaridad con Nicaragua"ko batek emanak.

Patxi Mujika eta bere lagunei ongi etorria eta afaria (100 lagun).

Herrera de la Marchara bi aldiz autobusa antolatu.

Extradizioen aurka kanpaina egin, bezperan asanblada informatiboa herrian eta ondoren manifestazioa 60 lagunek. Entzerrona 22 lagunek udaletxean, bertan pankarta ikurriñarekin jarri, zibilek 11etan kendu eta eraman arte, ondorioz zitazioa egin zigutelarik. Fabrikan bezperan hiru asanblada, 26ean fabrika eta herria gelditu zen. Eguerdian manifestazioa. Autobusa Bilboko manifestaziora.

Santi Brouard hil zutenean, herrian asanblada eta manifestazioa. Fabrikan asanblada greba erabakitzeko. Biharamunean kontzentrazioa eta autobus batetan bere omenaldira Bilbora eta hilketara Lekeitiora joan.

ETAko militanteak Hernanin hil zituztenean, Udaletxeak akoerdoa hartu zuen ikurriña ofizialki jartzeko. Zibilek lapurtu zuten.

Herria ikaratzeko egin baldin ba ziren 7 detentzio basatiak, bederatziz manifestazio egin ziren, bat ikastolako ume, guraso eta irakasleek (200 lagun arte). Batzarre bat. Fabrikan hiru asanblada. Greba orokorra fabriketan eta herrian. Ongi etorria (200 lagun). Afaria ere egin zen (150 lagun).

Eguerritan olentzeroa kartzel barruan atera, mahaia gestorearen materialekin jarri.

* * *

Nahiz Josu Iparra, Mila Erbiti,... eta besteak falta, ongi merezi ditugun pestak ongi pasa!

Leitzako Amnistiaren Aldeko Batzordeak



EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ (EHE)

MINISTERIO DEL INTERIOR		18-03-85	Hora 18'00	2.592-5
DEPARTAMENTO PROVINCIAL DE TRAFICO				
DE NAVARRA		2.- PRECEPTO INFRINGIDO		
- LUGAR DENUNCIA		Artículo 53-A	C. Circulación <input checked="" type="checkbox"/> DECRETO <input type="checkbox"/> ORDEN	Pesetas 15.000
NA-V-4113		P. Kilométrico 1'00	Con dirección a TOLOSA	
- HECHO DENUNCIADO				
MUTACION DE UNA SEÑAL DEL CEDA EL PASO; PINTANDO ENCIMA DE LA MISMA EN EUSKERA BIDEA EMAN.				

Herri erakunde hau Leitza berria denez, gure bidearen lehen pausoak ezagutarazi nahi dizkizuegu, leitzar guztiek ongi jakin dezazuen zertan ari garen eta nora goazen.

Abenduan eman genuen geure aurreneko pausoa. Kanean mahai bat jartzea izan zen bera, mahai horretan euskaraz hitz egiteko deia zabalduz eta EHE-en izaera adierazten duen liburuxka bat zabalduz. Lana egiteko dirua behar dela eta, materiale horrekin bildu genituen xoxak burrungeo kanpainan "inbertitu" genituen.

Trafiko-seinaleak euskaratzen

Kanpaina honi Otsailean eman genion hasera. Trafiko-seinaleak euskaratzea lortzea da gure helburua eta bi detatetik abiatu ginen kanpainaren hasieran: alde batetik, Udaletxean erabazteko bat sartuz Diputazioan behar diren jentzioak egin ditzan eta, beste alde batetik, pintura eta brotxak hartuta gure eskuz seinale guztiak euskaratuz.

Ezin esan dezakegu geure helburua lortua dugunik, baina bai helburua lortzeko bidean gaudela. Lau hilabete pasatu dira Diputazioak euskaratzearen seinaleak kendu zituenetik oraindik ez dituzte erdarazkoak erabaztu jarri. Une honetan seinaleak euskaraz eta ez erderaz daude. Egin esan nahi du horrek? Oso ongi jakigu, baina Diputazioak arazoa ez duela batera garbi esan behar. Alde batetik ez direla ausartzen euskaratzearen bidez bultzatzen (gainera erabazteko seinaleak aspaldi jarriak diren lirateke) eta, bestalde, euskaratzearen bidez bultzatzen gogo haundirik ez

dutela, aspaldi denok argi ikusten dugun bezela.

Ze aukera geratzen zaigu leitzarrei? Pelmada ematea besterik ez. Denok nahi dugu euskara kanean ikusi eta entzun. Eta Administrazioaren (Diputazioaren eta Madrilgo Gobernuaren) eskuetan dauden arazoetan mobilizatuz eta pelmada emanez bakarrik lortuko dugu nahi duguna.

Gure helburuak

Trafiko-seinaleak euskaraz lortzea al da EHE-en helburua? Bai eta ez. Bai, Administrazioa euskara erabiltzera "behartu" nahi dugulako. Ez, zeren Administrazioa ez da sekulan izanen euskara salbatuko duena.

Herriak salbatuko du. Euskararen etorkizuna herriaren indarrean dago. Leitza euskaraz bizirik iraunen du bakarrik leitzarrek gogor eusten badiogu euskarari.

Gazteekin:

Hontan dei berezia gazteei egin nahi diegu. Gizartearen etorkizuna, gure kasuan Euskal Herriarena eta Euskararena ere bai, gazteen eskutik dago. Eta gazteek egunetik egunera guttiago hitz egiten dutela bistan denez, beraiei esan nahi diegu ez dezatela biharko utzi euskara ikastea, zeren bihar agian ezinezkoa izanen da euskararen salbazioa. Eta gazteen artean dei berezia dantzariari eta futbolariari, zeren hauk umeek asko begiratzen dituzte eta eragin handia dute umeen jokaeran.

Gurasoekin:

Aipagarria da ere seme-alabak eus-

karaz ikastera bidaltzen dituen zenbait gurasoren joko erderazalea. Ez da aski umeak euskaraz ikastera bidaltzea, zeren gero etxean giro alduna bizi badute, azken batez ume horiek erdera hartzen dute beren bizian hizkuntza nagusitzat.

Komertziante eta soziedadeekin:

Komertzianteek ere, beren kartelak erderaz jartzean, jendea erderaz hitz egitera bultzatzen dute. Komertzioaren izenak eta oharrak euskaraz behar ditugu jendea euskaraz errazago mintza dadin. Gauza bera soziedadeei: hauei ere kalerako oharrak eta barne-funtzionamendukoak euskaraz egin dituzten eskatzen diegu, beraiek ere euskaltzaletasuna bultzatzeko eragin handia baidute.

Udal gizonekin:

Eta nola ahaztu Udaletxeko Bartzarreak! Idazkari eta kontzejal jaunak: ez ahaztu neurri batetan herriaren ordezkariak zaretela eta bere armoak bultzatu behar dituzuela. Erdera gehiegi entzuten da denak euskaldunak zareten toki horretan.

Herri afaria

Azkenik eta bukatzeko, trafiko-seinaleak euskaratzeagatik 36.000 pezetatoko multak ditugula gogoratu nahi dizuegu. Dirua biltzeko herri afari bat eginen dugu Uztailaren 28an. Prezio merkean gainera. Ea animatzen zareten.

EUSKARAZ ETA KITTO!!

Leitzako
EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

NOIZ ARTE LOTAN



Berriro ere, beste aldi batez heldu zaigu Plazaola gurea, Plazaola zaharraren suspirioak (suspirioak baino oihartzunak esatea hobea) berri-zeko asmoz. Orain arte beharbada kontu zaharrak biltzen besterik ez gara aritu izan, bada garaia ordea istorio zaharrak, gure tren zaharraren ostotsak bezela aienaturik daudenez gero, alde batera utzi eta gertakizun, kezka, sentimendu, eta arazo berriei ekiten has gaitzen. Bestela iragan-minak galduko gaitu, begiak eta zentzuak itsutuz sur muturrean daukaguna ikusten eta sentitzen ez bait dugu uzten. Eta gazteak garenez gero, espirtu gazte orori dagokion lez, gure helmuga gure barrenaz gain gure ingurua zerbait benik eraberritzea izan behar lukeela derizot.

Asmo edo indar horrek bultzatuta natorkizue lerro labur hauek idaztera, guztiok ukitzen gaituen arazo bat zertxobait inorratea, inorrateaz aparte zerbait eskeini edo proposatzeko asmoz, eskeinia guztien gogoko ez izan arren.

Aldizkari hontan beren, aurreko zenbaki batean, agertu izan zen gai honi buruz aipamen bat, nik neronek beste mass-media batetan idatzi izan dut haserreak eraginiko sakaketa edo zoezer antzeko bat. Baina orduan egin nuen bezela ez naiz gehiegi luzatuko oraingoan, hitzez gauzak neurtzea oso erreza bait da, hitzetatik ekintzetara pasatzea bai-

no errezagoa eta ni beinpin hitzez asperturik nagoenez gero, ekintzetara jotzea derizkiot beharrezko eta emankorra.

Artikulu hartan mendiaren eta errekararen egoera tamalgarriaz mintzo nintzen, egun berriro kontu berdinkin natorkizue. Plazaola zaharrak zirauen artean, gure aiton-amonak bizi ziren garai haietan, gogorrrak haientzat, ilidioak guretzat, ez zuten ezagutzen seguraski halako arazorik. Gaur zoritxarrez gure ingurua ekologikoaren egoera larria eta kezkarria izanagatik, anitz jende ez daki ezer edo ez da ohartzen hortaz. Zertaz? Begiak behatzeko dira ezta? bada hau irakurtzen duzue-nean has zaitezte hortan eta hor ikusi duzue, ikusi eta nekez sufritu ere; hots, mendiak pitez zartaturik erraiak ageri dituztela, bertan bizi diren landare eta piztiak oldarki erasoak, errekarak plastikoz, paperz, koka-kola latez (amerikarrak ere aspal-di iritsi bait zitzaizkigun) e.a. ez koloreztatuak; fabrikak ahiretzen duen kee usaingarri eta arnagarria eta errekaratzen dituen ur miresgarriak, hain miresgarriak bertan bizi direnak zorabiatuak beste munduan anka eskejirik dutela gera bait daitezke; mendi zein edozein zoko galanki apainduak; udazkeneko hego haize epelak jo orduko berriz, ehiztariak ere hor abiatuko dira beren eskopeta majikoz haizearen eta hegaz-

ti gizaxoen kanta alaiak errotik moztu eta ixiltzeko asmoz; eta kontatzen jarraituko banu, noraino luzatuko ote nintzatekeen! Ah! Ezin ahaztu azkeneko berria, hain zuzen gure herriak eta bideak eta irriak irekiko dituen autopista maitagarria, hau ere bada ba!

Plazaola zaharrak zirauen artean, orduan seguraski baino segurago naturarekiko harremana eta maitasuna askoz ere errotuago zegoen, gaur aldiz badirudi gure sentitzeko ahalmena oro galdu dugula, gure ingurunea kontsumoaren eta gizarte berekoi eta hondatzaile honen kristaletatik behatzen bait dugu. Noiz ohartu behar ote dugu lur honetan beste elementuen artean bat gehiago besterik ez garelara?

Beharbada gure geurekoikeriak eta gehiago izan nahiaren aspak munduaren jabe eta neurri garelara pentsatzea eraman gaitu eta garamatza, bainan oso oker gabiltza, hots, gure ortzean hegatzten den hegazti oro, mendietan haritzen eta luzatzen diren pago, haritz, lizar...; mendi zulotan gordetzen den edozein basapizti zein abere, zelaietan ernatzen diren lore eta belarrak, erreketan jolastuz bizi diren amorrain, eskailu, igel e.a.denak oro har, gu bezela izaki dira, bizi, sentimendu, eta lengoai bereziak dagozkienak. Hortaz, nola joka dezakegu jokatzten dugun bezela?

Ekosistema bakoitzean oreka gordetzear izaki sinpleena beharrezkoa izanik, nola ausar gaitzke hain estimagarri izan behar genukeen bizitza suntsitzea eta hiltzea? Hor doazkizue galdera hauek norberak bere kontzientziaren arauera hausnar eta erantzun ditzan.

Honenbestez, hau dena eta gure herriko inguru ekologikoari dagokion arazoez kezkatuak, lanean has-teko gogoarekin badagoela jenderik kontuan izanik, pesta ondoren edo iraila inguruan gutxi gora behera biltzen hastekotan gaude arazo larrienei benik erantzunen bat emateko asmoz. Orain gainera autopistaren kontua hor dagoenez gero ezin izan aitzaki hobea gogorik mugitzen hasteko lehen bait lehen. Bileren berriak tabernetan txartelen bidez zabalduko ditugu. Beraz interesatua dagoen edonorrentzat hor doakio deia.


BAI, AIZTITXOAN ATEA DOK IKASTOLAKO TABERNATIK

Ze ordu da hi? Bostak eta laurden alde izane'ek oañ. Halaxé dttok gañea. Joe hoi biste dauket hi. Hi, ba aldakik ze egin behaun; ikastolako taberna joan ta ollasko bat yan behaiu. Ez dok potroik. Ezetz, oaintxe ekusiko'ok. Ze uste'ek hik, behin etorriko Leitze'a ta... yan da ean beñepein... beste gauze asko're ein beharra genien beño, gaur ez zetiua ba denak egin beharko. Hi, han Txokon geundela nola zeon neska alta'at, morena morena. Bai gizona! zea, nik kuberdie eskatu'otenen, nere ondoan zeoan, da beste ero hue hasi denen nere gañea erori'ik. Ah! bai bai oantxe akordatzen nak. Hi, ba, gustatu egin zetziek neska hue. Gañea ze amabilidadekin esan dun, oye perdone e!, ta gero ohartu al haiz berrize, oye tienes fuego? ta diskulpatzen hasi dok, oye no te habré hecho daño antes, no?, ta gañea asko beirutzen zien, zerbate nahi zule ematen zien eh! Iduittu ein izantzak hiri motell. Ez, kopon, gustatu zitziek, komaidios baietz. Atzo're ikusi nien diskotekan eta jatorra dela ematteik. Hi, entzierroa handik pasatze'ek, ez? Bai, hor barrera batzuk yartzen zetie, da gora yoan beharren, hona plazara sartzen dttok. Gaur atea behaiu eh! Atzo ez giñuzen atea, beño gaur bai, igoadik hitzen baga're. Aio pareja. Aio bai. Zein tzen hoi hi? Hoi zera huen, atzo nola zeoan pelota partiduk ikusten ai giñela, aurreko puntten, haren anaie dok hoi. Bai zea! ezte bate antzik. Aurten partidu polittetek yarri zetie eh? Bergarille alu hoi, hoi duk alue hoi! Nei ez zetzien ba hainbesteo're iduittu. Oañ, Galartzak asko galduik eh? Keba keba, ikusiko'ok hemendik urte batzuta; gañea bakik andreagaiare hemengoa ta, entenditzen diek ez? Datorren urten baietz Retegiri kendu. Bertan yokatuko netike mille duro heldu den urten'e baietz Retegi kanpeon. Hi Mikel, ollaskoik ba al da. Osoa yaneieu ez? Ba bai ekatzak osoa. Eateko ze hartu behak. Nik zerbez'at etxe añekoa. Nik kalimotxo'at eo, nahi dokenena ateatzak... Zein da goiko hoi, bizardun hoi. Hoi zea dok, Iparra. Atea al zen? Josus motell denboak dttok. Ameriketane denbo dexente egin zien, ta oañ aspaldin Sara alde hortan eo izate'ek. Zer moduz moldatzen ote die besalden eo? Hortxe, ahal duen bezela, oañ betire hobekixeo, lehenoz izandu zikean bulada bat, estradizio


ta osti hoikin, joe... txarra txarra! Ba al dakik zein den oañ sartu den hoi. Ixilik! hona heldu dok eta. Kaixo. Kaixo bai. Hau al da dimitittu zune. Bai hau dok bai. Ixilxeo, kopon, dena aitzeik eta. Ta ze, beste munduko gauzik ez diu esanen beñepein da. Patxi Zabaletan anaie delakoa edo hau de ordun? Baietz ba, baietz! esatzak altuxeo ea aitze'un. Lasai gizona, ez dik aittoko ta. Azkenen zeatik utzi zun honek, bazeikit prentsurrekoa ta eman zutela, beño berak azkenen etzien arrazoi garbik eman, ez ta? Bai, behin lettunien bai, dimitittu berri hartan, oañdik ez zule deus esanahi, geo emanen zittule arrazoi guzik. Bai, etzakit noiz, oandik esperoan geudek. Ikastolan zeakoa omen huen hau ez? Eske, nei normala iduittzen zetziek, eskola estataletan euskea ikasi zittekek eta oañ beño giro hobea sorture bai, beño, emen ikustek ba koitzek be'e gustuko txoko batzu euki nahi dittule, ta gañea besten dirutik. Hasi'ai hire... Ez, hala dok hi! Eo hiri ez al zak hala iduittzen. Nei ez hi. Behe hortan ze itt'ie ba, esaiek? ezte deus itten da. Ikuste'ek gizona, ez ta ostiaik'e! Ah, nik etzekit hi, nik aitzetena esateit. Gure herri'e holatsu zebiltzek eta bide bat billatu beharra zeok. Ikastolak lan izugarrie egin die, bale! Beño gaurregun beste bide eokio batzuk bazeudek ta hoi ez diek ukatuko. Ukatuko ezetz? eonai ixilik, eonai ixilik, ollaskoa yaten espezial ai nittuen ta tripako miñe hasi zetziek ya. Bale hi, ixilduko nak! Ona al dao eo? Mundiala. Nahi al dozo? torri, hemen iztarra, oandik ukitzekoa dao. Ez ez, estimatue dao. Etxea goaz, umek'e aspertuxe die ta. Hoi hoi gañea! umea're ikastolara bialtze zule atto nien ba nik. Bialtze zule? oandik'e hala bialtze'ik. Hara, hemen dok falta zena. Ekusi al dok hor yoan den hoi. Bai eondu nak beakin. Nahialdok? gelditze'ek oañik'e. Hezurrek, ez? Ze nahi huen ba hik, petxuga eo. Ze hartu behak? Betikoa? Atea zak bai. Landan eondu nak... hue deskojonoa hi, bai hittuen bi tipo, beño, total iñek eh! Hari beide hasten gattok parrez, eta ez giñela ixiltzen hi. Kriston zea usaie zegoan. Joe ta non ez! Egie dok eh, ostien pille zebillek. Ta geo diruik ez daula esateik yendek. Nik erregea beño hobeki neok hi. Ez dok zalle. Bai earra zegoala. Beno, oañ ba al dakik ze in behaun, diskoteka

bueltatxo'at. Honezkeo gratis utziko al dikea. Gratis? bai, eonai hortan, hemen itxiarte ez dikea uzten gratis. Gaur gañea, dianak, entzierroak eta denak ekusi behar zetiua. Ta geo zer da. Etzekit. Hi, Mikel, proramik ba al dok hi? Gaur zer da? ostiune? Osteune ze izan behaik, asteazkena dok eta. Aber, lunes, martes, miércoles ementzeok. Goizen, hamabitan bertsolarik ta atsalden dantzarik. Ordun, lo eitte' añekoik ba ote da. Lo? erotu haiz hi motell! geo're han eonek bai otea. To hi, hartzak. Hartzak mendin izate'ttok eh... Eskerrik asko hi, berdin hok, ez die esanen da. Hau dok kabrona hau! Hala dok ba! Gu bagiztek, hi hor gelditze al haiz. Heldu nak, heldu nak. Zein tzen bankun eserite zeon pareja hoi hi? Nei ze esateiek, ze uste'ek ni zea naizela eo... Beño, ez al die hemengoak? Bai zea, ezagutuko netien emengok izan balie. Mutille ezaune itten zetzien ba nei. Hik yakiñe'ek hi. Hemen diu, hemen diu. Hi, alkatea ekusi al duzue hi? Bai, aiztitxoan atea dok ikastolako tabernatik. Ez ez, bestea, Mattus. Ah! ezta ideik'e hi. Guk bestea ekusi diu. Non kristo sartu de ba gizon hoi? Lasai, azalduko'ok bai!

EL, LA, LO EXMO...



BURU GABEAK... ZAPELA BEHARRIK EZ



Nora abiatu haiz holako abailan, Fraxke?

— Kaixo, Doloex! Zapela erostera noa. Berehalaxe ditugu pestak eta gure Oxemartinek nahi ta nahiez zapela berria behar!

— Txapela berria orain, neska? Gaixorik egonen dun edo...

— Ez, Doloex! Gure nagusi jauna, behin ere ez bezala dago, osasun onean eta gordin gordina oraindik. Ez hobentxurenak emanda, beste asko bezala.

— Eta orduan... zer demontretarako behar din txapela, neska! Holako beroa, halako modak, bazter guzietan pertsonak gaztetzeko apaingarria besterik ez dun agiri eta udara gorri gorrian txapela? Por Dios! Hara, Fraxke: Gaur egun, txapela txorizomorroek erabiltzen dituen. Egia dun eta... Txorizomorroak eta attonek neguan. Karrozen gauzak baiditun. Txapela orain... Por faborr!

— Nere senarra, ordea, beste gauza bat da. Buruan zapela zeramala ezagutu nuen eta orain ere ongi behar denean, hala gustatzen zait. Gure Oxemartinek bezela zapela nork jartzen duela uste duzu? Zapelari gure gizonak bizia ematen dio, hitz eraginazi arte bizia eman gainera.

— Hara orain, berriz! Hori ere bai al dinagu? Txapelak hitz egin, neska? Jo...ass! Por Dioss!

— Bai. Zapelak badu bere lenguaia. Apaingarri izatekotan, ederra behar du izan, aurreneko gauza. Lehen frantsesek ontto beltzak jaio

berrian bezelako txapeltxoak eramaten omen zituzten. Orain oso haundiak. Zapel eder batek burua apaindu, ederragotu egiten du eta adierazbide berezia bihurtuz, bakoitzaren nortasuna nabarmen egiten du.

Oxemartinek ez du nolani jartzen zapela. Ez du ezartzen, zerutik eroritako plater hegalaria baten antzera, eskuaz dardar bat, mugimendu azkarra, bihurki bat eginez baizik. Egia baita: Zapela, ezker edo eskuin, bihurritua, kizkurtua eta alde batetara eroria eramaten da. Bakoitzak bere erara jartzen du eta batzuek oso oso ederki eramaten dute, Oxemartinek esate baterako.

— Jainkoaren izenean! Pasatzen ari haiz, Fraxke! Orain dela 100 urtetako gauzak esaten ari haiz! Zapelaren lenguaia! Qué pedante!

— Hala da eta! Ikus ezazu gure gizona ondo bazkaldu ondoren. Xelebrekerietan hasten denean. Kontu kontari goxo goxo ari garenean, frekiloa aurrean duela eta zapela atzekaldera... Hura dun, hura giroa!

— Txapela atzera? Zertako ditun oraingo besaulki eta kuxinak, Fraxke! Ez al ditun mila aldiz erosoak, por Dioss!!!

— Ez ez, Doloex. Horiek, lo kuluxka egiteko dira eta kontu kontari aritzeko mahai ingurua da hobereana. Segitzera noa:

Zapelak eguzkitan ere badu bere egitekoa, bere lekua. Ez dago esan beharrik. Zapela aurrera.

— Earki zegoen, neska. Alperrik

ditun sonbrilak hirezat, berriz esanda ere Joasss!

— Hain baliotsua da gure zapela... Ez al duzu ikusi inor poxpoloa pizteko eskutxokoan zapela jartzen? Holakoetan aizearen aurka babesgarri paregabe izaten da noski.


Eta ez naiz aintzinako kontutan ari. Denbora haietan, zapelaren azpian, eta zapela buruan jarria eduki arren, metxa (oraindik lehenago ardagaia), kisupipa eta biztarria gordetzen omen zituzten.

— Rok dantzan ez al hitunan hasiko! Joasss! Qué karrozas! Begira, Fraxke, entzun ezan: Oraingo denboretan bazeuden apaingarri egoikiaskoak: Mila koloretako bixerak, telazko eta rafizko sonbreroak... Al eta... Bai al dakin zer eramaten den asko? Kopetako edo indiarren zintak. Qué monada! Beste gauza bat dun hori, neska! Jo...as!!! Arinago eta bixiagoa! Jar ezaion Oxemartineri kopetako polit bat, ongi jarria eta 10 urte kenduko dizkion gainera.

— Bainan egon ixilik Jainkoaren izenean! Zer esaten ari zara! Nik gure nagusiari idi zahar bat balitz bezela kopetakoa jarri? Ez horixe! Jar iezaiozu zuk zure gizonari zorioneko kopetako hori eta baita lumak gustoa baduzu.


Ni arro arro, zapela dotore bat erostera noa.

Fraxke



ZAPELA AXALETIK BITXIKERIAK

- Tafallako Sta. Maria Elizan 1426ko zapela bat gordetzen da, zilarrezko oroigarri ontzian eta atzean hau irakurri daiteke: "Juan Lome kisuskile jaunari mirari bat gertatu zitzaion hemen. Santu baten gainean (honek gorde zezan) zapela utzi eta han allatu zen ibiltari batek hartu nahi izan zion; baina ezinezkoa, Santuaren iruditik kentzerik ez bazuen izan". Txortetik gabeko zapel gorrista bat da.
- Arnald von Harf izeneko erromes batek, 1496 urtean "De Colonia a Compostela" izeneko idatzian, txapela jantzita zeramakien Orthezko herritar baten irudia utzi zigun margoztuta eta esaten zigun Ortheztik Sauveterrerako lurraldeetan (Benabarra eta Xuberoko mugan) gizonek zapela eramaten zutela.
- Buruko apaingarri bitxi hauek alde guzietan euskal zapela izenez ezagutuek, gure herriarekin zer ikusi haundia dute. Sortzez hemengoa zela ezin badugu esan ere, Karlisten gerran, txapeltxuriek eta txapelgorriek oraindik gehiago indartu zuten zapela eramateko ohitura.
- Industriari buruz, Valmasedan, Ezkaraian eta Tolosan egiten ziren txapelak batez ere.



Tolosan, 1859-60 urtean, Mexikon urte batzuk igaro ondoren, Anton Elozegi eta Lizargarate jaunak zapel industriari bultzada haundia eman zion. Aurrena gantxilo egiten ziren eta 30 emakume izaten ziren lantegian gutxi gora behera. Bainan Antonio Elozegi jaunak euntzeko, tintatu eta baita ere bantantzeko makinak sartu zituen aguro. Lehen tintea cochinilla edo argorritik ateratzen zen, gero kimi-karen bidez.

Lantegi hau ospital zaharraren ondoan zegoen. Elozegik berriz, Elizaldean, errota zaharreko presa hartu zuen energi iturritarako. Mundu guztitik etorri izan dira lantegi hau ikustera. Nola ez bada? 1921 urtean 1.250.000 zapel egin ziren. Eta 29an esportazioak hauen izan ziren: 114.000 Ingalaterrara, 128.000 Belgikara, 128.000 Suizara, 52.000 EE.UU-ra, 10.500 Suezia eta Noruegara 48.000; Alemaniara, 42.000 eta Hegoameriketara 250.000.

- Tolosako fabrika ikustera nor ez da joan izan? Al-bum bat aterako dizute; eta han, zure izena bota baino lehen, ohitura den bezela, lantegi hura zer iruditzen zaizun idatzi beharko duzu.

Hona hemen batzuren iritziak:

Txapela nai dot buruan
mingañean berriz euskera
biotz barru-barruan
biak daukadaz batera.

(Pablo Zamarripa)

Gogoratzen naiz nola negarrez
marruka lertu nayan
ume denboran egondu nitzan
igande zan goiz batean
chapelan ordeaz amak guiballa
jar-arazi ziranean.

(Arresetar Emeterio)

Nola eta zergatik
ez nekielarik
askotan esaerau
nedukan entzunik.
Bañan lantegi au gaur
gogoz ikusirik:
Buru gabeak ez du
chapela bearrik...
ta dunak estalitzeko
chapela besterik.

(Baleriano Mokçroa)

Marimuru

LEITZAKO GORABEHERAK

- Gauza asko gertatu da Herrian urtean zehar. Bainan Larbando futbol-zelaia eta Aurrera futbol-taldea aipa ditzakegu inportantenen artean dudik pe. Liga sailkapenean hirugarren gelditu badira, kopa etxera ekarri digute gure ostikalariek. Segi hortan, Peru!

* * *

Gizon adardun
Lapurren bildurrez bizi bazarete
Emakume hotz
Espionajeko prolemarik baduzue

AGENTE EZPOL (Tel.: 089)

* * *

- Adizak, Zestau, Xaxaki hori nondik atera dok?
- Hori? Begizak: xaxa dok marka, arrastoa. Garai batean, pilota partiduetako tantoak eramateko, arrasto bat egiten huen. Eta arrasto horiek egiten zituen huen xaxari edo xaxaki.
- Baietz, gizona, baietz.

* * *

- Egun zoragarria Nafarroako dantzariak eskeini zigutena. Zoritzarrez eguraldiak ez zigun lagundu, bertakoak horrelako langarretara ohituta bagaude ere. Telebista eta guzi ere izan genituen. Hori bai, beste baterako frontona pintatzea ere ez hukek gaizki etorriko.

* * *

- Elgoien auzategiko Sañtiagoak ere gero eta hobe. Urrengo urterako proiektu beharrik ez dago, hango Alkate jaunak zioenez. Zezen-saioa eta guzi eman behar omen dute. Hara hemen toreroak:

El Soro, Erbiti eta El Niño de Korrenea

Ez da nolana hikoia izanen hauxe!

* * *

Espartzinak
Janariak
Guardasolak
Ordenadoreak

JUAN LARRAZ

* * *

- Rok-talde bat ere ateratzekoa zela, eta oso animatuak ikusten genituen Potrokarrobi izeneko osagi-leak. Bainan azkenaldian, bateria ondatu zaiela eta aurreragoko utzi izan behar dute. Kontuz, Boccata, Huesca aldeko aldapa horietan...

* * *



- Iturri Zaharretik honuntz heldu ginela, frantses batzuk aurrez aurre:
— Ici Maison Koxme? —galdetzen digute. Guk ez genekien Koxmek Isi izeneko alaba zuenik bainan,
— Ui, ui, esan eta aurrera segitu genuen.

* * *

- Leitzarrak Prantziara ere ailegatu zaizkigula. Hor daukagu Otin txirindularia Hinault-i itzal egin nahian... Ez ote zaio erreleborik aterako?

* * *

- Pizzinak ere ongi. Aurten 60tik gora ume igeriketa ikasten eta 30 inguru giza-emakume. Ikas dezatela, horrela ez dira ittoko San Juan bezperako zikiro-jatearen ardoetan...

* * *

Pinudietarako esiak
Teilatu konponketak
Lan konplikatu eta txukunak

BILLARTA (Villa Martina 33)

* * *

- Bertsolari Txapelketa, Haizkolari Txapelketa. Gero ez omen dela deus gertatzen Herri hontan. Orain arte bi idazle famatu genituen, Patxi eta Iñaki Zabaleta. Aurten beste bat gehiago garaile: Patxi Perurena Loyarte. Ez dok edozein herritan hainbeste izaten. Ia, ia, pilotari baino gehiago zegok eta. Zorionak Patxi!

* * *

- Eta besterik gabe, heldu den urtea arte. Pesta onak pasa, ahaz penak, egin jolasa!!

GAZI-GEZAK

"ZINKO" TABERNAN

Sartu zen "Zinko" bere lagun batekin Oxemari Amerikanoaren tabernan eta sei baso ardo eskatu zituen.

Oxemarik bete zituen sei baso ardo eta galdetu zion "Zinko"ri:

- Non dituk beste lagunak?
- Ni "Zinko" eta hau sei!

GAUZAK ARGI

Martinen semea eta Jose Luisen alaba laister ezkontzekoak ziren. Martin joan zen Jose Luisen etxera eta honela mintzatu zen:

- Auzotik jakitea baino hobeia izaten da eta elkarri esan behar dizkiogu gure umek dituzten tatxa guztiak. Nere semea kortobiste samarra da.

- Hala ere nik nere alabari ematen dizkietenak aise ikusiko ditu!

URDAIA BIZKARRETIK BEHERA

Zerri hiltzeko eguna festa handia izaten da etxean. Goizean etortzen dira harakina eta zerri eustailleak. Kafea eta kopa hartu eta zerria hiltzera. Zerria hil, zimeldu, garbitu eta tripak atera. Tripak ateratzerakoan berriz kafea eta kopa. Birrikak uretan garbitu, behazuna harrika teilatura bota oiloek jan ez dezaten, zerria zintzilik paratu eta gosaltzera. Gosaltzekoan gibela jan empo eta ondoren gizasemeak segoak txikitu eta emakumeak errekan zerri tripa garbitu. Bazkaldu eta gero musean. Josetxo lagunik gabe gelditu zen muse-rako eta bere amak esan zion:

- Jokatuko diit "mano a mano".
- Emakumeak ez dakite musean. Zuri aise irabaziko dizut.

Hasi ziren musean eta Josetxok bost partidutatik lau galdu!

Ilunabarrean zerria puskatu eta hurrengo egunean gazikutxean sartu zituzten urdai, solomo eta saiheitskiak. Egun batzuetan gazitzen eduki eta atera zituzten urdaiak. Ama han ari zen labanaz ebakia egin urdai pernilari eta lokarria erasten zintzilik jartzeko. Josetxok:

- Emakumeen lokurarekin ni ez naiz fidatzen.
- Hator, lotu zak heorrek.

Lotu, alki gainera igo eta jarri zuen urdai pernila zintzilik, Josetxok. Eta zer da ta alkitik jaisten ari zela lokura eskatu eta bizkarretik behera urdaia!

KRISTAU ONA

Apez handia zen Don Manuel, ehun ta berrogei kilotik gorakoa. Sermoiak egitekoan mingainean larrik ez zuena eta tripazai galanta. Etxez-etxe ibiltzen zen tripa betetzen. Etxe batera joan zen eta etxe hark bis-

ta ederra zuela eta balkobera atera zen bazterrak ikus-tera. Balkobearen alde batean erle-eultza zegoen eta honen ondo-ondoan jarri zen apez kankailu hau.


Etxekoandreak esan zion:

- Ez bedi hor jarri. Erleak gaiztoak dira eta horzka eginen dioa.

- Kristau onari ez diote egiten horzkik!

Handik berehalaxe sekulako erle pila itsatsi eta karrasika sartu zen etxera!

ASTAITZ



BERASTEGIKO JOSE ANTONIO MUÑAGORRI ETA NAPARROA

Irakurle estimagarri: Ain gurea degun "Plazaola" aldizkarian zer edo zer idazteko eskañi didate. Eta zer idatzi! Plazaolarekin pentsamen pentsamen nagola burura etorri zait nola garai bateko Plazaola Burni-Olaren nagusi edo arduradun izan zana Jose Antonio Muñagorri, alegia. Euskalerrri edo Euzkadi gure aberriaz daukagunantzako Berastegiko Muñagorri izan zen lenengo Karlisten gudan (guerra) (1833-1839 urtetan).

Buruzagi aundi bat. Euskalerrriko askatasunaren alde zearo murgildurik eta uztarturik egon zana. Naiz eta guri geren eskola ikasteko garaian ezer ez esan ezer ez erakutsi.

Bera Jabe, arduradun zen Burni-olaetatik atera omen ziren, aunitz eta aunitz, Karlatar guda mutillek bear zittuzten garaiko izkillu edo arma mota guzitakoak. Ollokiegi, Amerain, Plazaola, Urto, Areso eta Erasungo Asurre mendian dagon Zumarrestako Ola-aundia ziran garai artan Muñagorriren mendeko olak. Itz bitan edo letra bitan irakurleei adierazteko guda artako Muñagorriren egiñak lan zalla da.

Tomas Zumalakarregi il ezkerero esan daiteke Naparroan eta Gipuzkoan Muñagorri zala buruzagi ospetsuena beste batzuei ezer kendu gabe. Au esateko irakurri besteik ez dago eskutitz eta garaiko bertso auek. Eskutitzak erderaz idatzirik atera ziren eta Antonio M. Labayenek euskeratuak. Nik onek idatzitako "Muñagorri" liburutik jaso dittut.

NAPAR ETA GIPUZKOARROK!

Bost urte dira ondamen eta eriotza gure sorterriarren gañean daduzkagula. Gure lurraldean isuri dan odola, anaien odola dugu; su-emaille batzuek bultzata Prinzipe baten alde borrukan ari diran anai kementsuen odola. Espainia'n Errege izateko baezpako eskubideak dituan baten alde emanak. Zer eskatzen duzute? Zergatik eta zefientzat ari zerate sutan? "PAKEA eta FUE-ROAK" Auek izan bear ditugu elburu! Aundinaioek errege-alkia nai baldin ba'dute, or konpon!

Naparroa eta Euskal Probintziak ainbeste adiskidetasun, odol, oitura ta eskubidez elkartuak beti beren buruen jabe izan dira. Emendik aurrera ere ez genuke jauntxo zeken oien menpeko izan nai. Agintzen oituak eta beartsuen bizkar aberastutzen diran oien mutil.

Ar itzazute armak! Gora gure azkatasuna! Pakea ta Libertadia!

Zaudete agintari berrien esaneko!

Berastegi - 1838 Apirilla'k 19

Azkatasunaren buruzagi nagusi dan

MUÑAGORRI

D. KARLOS'I AZALPENA

JAUNA!

Nere erriaren zorientasunak, Espainia'ren zorientasunak eginkizun doatsu batera naramate. Batak eta besteak anai-arteko erri-gerra bukatzeko bideak billatzera bultzatzen naute.

Barkamenik ez duan izurte ondagarri ori itzaltzera.

Ogeitamar milla famili suntsitu dira gure lurraldetatik; eta beste eun milla mixeri gorrian arkitzen dira. Ondamen au, ezbear auek beorreatatik etorri zaizkigu, jauna!; zorigaitz oiek españar guztion biotza erdititzen dute. Gerrate anker orren atzaparretatik nola atera da barruan daukadan kezka. Asmo zuzen ori aurrera eramateko gauza izango al naiz? Galerazi neza-keana bakarria eriotza da; eta onek ez nau beldurtzen.

V.A.R. (Infante-agurra egiten dio ez erregearena) Beorrek antzemango dio alde egin bear duala probin-

tzi auetatik. Beorrek, jauna, eta beorren aolkariak basamortu biurtu dituzuten lur ontatik; dolu-miñez eta ildakoen gorputzez beterik.

Alde egin beza lenbaitlen beste tokiren batera an adiskiderik baldin ba'du. Jarrai dezaiela Espainia'ko koroaren eskubideak dituala usten baldin ba'dute. Guk ez dizkiogu ukatuko.

Jakin beza, ordea, au jendearteko gerra dala, ta guk, napar-euskaldunok ez dugula gure fuero ta legeak beste erregerik aitortuko. Beorrek Errege izan nai duala? Joan bedi erregetzat artu nai duten probintzietara; orretarako gogoia daukatenarengana.

Beorri ala Isabel, ezpatak erabaki dezala auzia. Asko ezik, odol gelegi isuria da ainbat landare alper mantentzeko añakoa. Etsipena ar beza nik egiten diodan gure jabetasunaren aldeko deadar au ez duala iñork isilduko; erriarena bait da eta aren borondatea nerea. Gure ziña mendi-ballarak entzun araziko dute. Naparroa'ko lurretik alde egin beza! Jauna! Guk Pakea nai dugu, atsedenegunaren zai gaude. Bijoia beste toki batera ondamen asmoak betetzera, baiñan ez beza aztu Jainkoa'ren Justiziak gizon xee, arruntak bezin bat Printzipeak ere zigortzen dituala.

Jaungoikoa'k urte askotan gorde bezala!

Berastegi - 1838 Apirilla'ren 19'n.

Bere buruen jabe diran soldaduen kuarteletik.

J. Muñagorri, buruzagi.

MUÑAGORRI'REN KANTAK

Muñagorrik diona bere proklamean "Gerrak ondutzen gaitu boskarren urtean". Igaz jarririk Karlos Madrilko bidean, bultzata zuten atzera. Gerra bere ofean.

Agintari onenak
preso daduzkate;
euskalduna izatea
du bakoitzak kalte,
Tejero ta Maroto
guzien alkate;
zer gizon oietatik
espero gentzake?

Karlos agertu ezkerro
Probintzi auetan,
beti bizi gerade
neke ta penetan;
maiz kendu guk deguna
beñere ez ezer eman;
bost negar egiteko
nunbait jaio giñan.

Semeak soldatu ta
preso gurasoak,
ezin pagaturikan
kontribuzioak;
trintxera lanetan
gañera auzoak;
dolorezkoak dira
gaur gure pausoak.

Kordoiz inguratirik
kostatik Ebrora
trabaz gaude josirik
bera eta gora;
atzenikan frantzesak
itxi du frontera;
gerrak ez dakar onik
iñundik iñora.

Ateak itxi eta
ogia garesti,
artua ere ari da
igotzen poliki;
dirua ezkututzen da
egunero emendik;
nola bizi geraden
arritutzen naiz ni.

Bost urte ba dijoaz
ta nekea beti;
eta bear ditugu
begiak ideki,
Karlistak Ebroz gora
motel eta gutxi;
aien esperantzetan
ez gaitezen bizi.

Ainbeste odol ixurtze
ez da doloria?
Il da Probintzi ontan
gaztien loria.
Patria defenditzia
litzake onoria;
anaia anaiaren kontra
txit gauza tristia.

Orain seireun urte
gutxi-gora-bera
Gaztelako Reinura
unituak gera.
Gaztelan zein buru dan
ura guk atzera,
Fuegoak gorde ezkerro
egin zan papera.


Disputarikan bada
zeñentzat koroia
erabaki bear da
Gaztelan pleitua;
Errege edo Erregiña,
gure deretxua
beti gorde digula
garbiro Fuerua.

Irakurle: Muñagorriren pauso batzuk jakin izan dittuzu baiñan eriotzarena baliteke ez jakittea eta orta noakizu orain:

Muñagorri: Erasungo Zumarrestako burni-ola izan zen garaiakalde dagon Pillota soro izeneko lurrak fusilatu-ta il zan. 1841garren urteko urriaren amalauan eta biramonean Erasungo Eliz bertan eliz lurperatua.

Iltzalle: Ramon Elorrio. Beteluko semea baiñan gazte-gaztetatik Tolosan bizi zana. Berez liberala ta tenientea.

IREBER



AURRERA, FUTBOL ZELAI BERRIAREKIN!

Leitzan, beste herri askotan bezalaxe, futbolerako zaletasuna aspalditik datorrena da. Nork ez dauzka gogoan Periko Zaldarrekin, Roberto Sukuntzakin, Gaztelukin, Martin Monterokin, Jesus Azpirozekin eta besterekin Inguruarten jokaturako Leitza-Lekunberri eta beste partidu asko. Geroztik ere, Santi Larraz, Txino, Miguel Cestau, Pello Erasunekoa, Vicente anaiak, Tito, Zili, Potxolo, Zaki eta abar luzea aipa daiteke, nolabait gaur arteko zubia egin dutenen artean.

Baina, Inguruarte ez zen behar diren legezko neurrietara iristen, futbol zelai bat eraiki nahita ere, eta Sarriok terreno egokiak bazituela ikusirik, beragana jo genuen. Alde batetik eta bestetik hamaika bilera eta buruhauste ibili ondoren, aipaturiko terrenoak gure eskura izatera lortu genuen; eta benetan eskertzekoa da Sarriok gureganako erakutsi zuen borondatea, bestela ez bait genukeen gaur oraindik futbol zelairik izanen.

Jendea (zahar eta gazte) mugi arazi genuen, eta denon artean lanari ekin genuen. Hilabete asko **auzolan** eman ondoren, eta jendearen laguntza izugarriari esker, **LARBANDO** futbol zelai berria martxan jarzea lortu genuen azkenean.

Gauza guztien gaineratik, esan beharra dago, jokalariek (futbolariek) ahalegin guztian aritu direla kanpoa prestatzen, eta nola ez, gero kanpoan jokoan ere bai.

Kirolari dagokionean, esan daiteke denek entenditzeko moduan "el premio a la deportividad" kontsegitu dela, eta hauxe da beste helburu guztien gaineratik eduki behar dena. Hala ere, ezin ahaztu dezakegu ligan lortu dugun 3garren postua, maila bat gora egiteko zorian ibili bait gara, bi lehenbizikoen ondotik.

Federazio-kopan leitzar gazteek txapela berenganatu dute, duten guztia eman dutelako, eta batez ere, **ELKAR ONGI HARTU** dutelako. Klubaren koloreak defenditu dituzte Nafarroako herrietan barrena Leitzak eman lezakeena apalki erakutsiz.

Afizioak ere, futbolerako zaletasunak ere, hobeki ezin erantzun zuen. Gogoratu besterik ez dugu, azken partiduan ze jendetza polita bildu zen, eta ze ilusioz animatu zuen amaiera arte. Egia esateko, sufritu ere egin zuen, ez ziren nahi ordu etorri prorroga eta azkeneko penaltiak, baina, behin ere ez zen galdu emoziorik.


Jubenilen ekipo bat ere osatu nahi genuke, lehen ekiporako "kanteira" bat izan dezagun, eta aldi berean, gaztetxoek ere jokatzeko aukera eta ilusioa izan dezaten. Hone-la, zuzenki ez bada ere, herriko ekipoen partaide izanen bait lirateke, eta gainera, elkar hobeki ezagutzeko, elkarren arteko harremanak hobetzeko eta beren gizabideaz jabetzen joateko aukera izanen lukete, gizartearen eta herriaren onerako.

Baina, asmo hau egia bihur dadin, afizioak gaurdaino bezala erantzun behar du, bestela, zail izanen litzai-guke. Badugu, ordea, esperantza, afizioak eta betiko zaletasunak erantzunen duena.

Bukatzeko, behin eta berriz eskerrak ematea besterik ez zaigu gelditzen, Leitzako herriak futbol zelai berria izan dezan, alde bateko eta besteko laguntza eskaini duen jende guztiari. Hainbat arto eta bellar eman duen gure **LARBANDO** zelaia izan dadila hemendik aurrera, pretentsio elokuenterik izan gabe, gaur egungo gazteria kirolera eta elkarren arteko giza harreman sanoago batzutara bideratuko duena. Hori da gure helburu printzipala, behinik behin. Ea lortzen dugun denon artean.

ALDERDI EKONOMIKOA

Aurrez aipatu dugu lanak nolatsu egin diren, eta noski, kontratista bati eman da egin behar izan balira, dudarik ez dago, kosta den halako bi edo hiru kostako zela futbol zelai berri hau. Beraz, afizioa, sentimenduak, eta kirol zaletasun ikaragarri hori jarri duenak ezezik, bere eskulana jarri duenak ere badu bere meritua eta merizimendua. Denei esker pezeta asko aurreratu baita, han pixka bat, hemen, beste pixka bat...



Kanpo osoa txapaz ixtea, ondarra, eskabazio lanak, drenajea... banazbeste miloi t'erdi kosta dira. Aldagelak: ura ekartzea, taberna, almagena, eta bat eta beste, egia esan asko igo da, bi miloi t'erditara. Sarre-rako ateak, txapak, urbidek, haizeak egindako kalteak eta abar berrehun mila pezeta. Honararte, 4.200.000 pezeta guztira.

Orain, 84/85 Denboraldiko balantzea eginez, honako sarrerak ateratzen zaizkigu:

Abonoak (sozioak):	300.000 pzta.
Publizitatea:	200.000 pzta.
Takillako sarrerak:	220.000 pzta.
Osasuna-Aurrera:	125.000 pzta.
Larbando tabernan:	80.000 pzta.
Aurrerako tabernan:	55.000 pzta.
Loterie:	90.000 pzta.
Guztira tenporada honetako ingresoak:	1.070.000 pzta.

Gastuak:

Bidaletan:	250.000 pzta.
Arbitrajea:	75.000 pzta.
Federatzeko fitxak eta fiantza:	75.000 pzta.
Kirolerako materiala:	125.000 pzta.
Tarjeta oriak:	15.000 pzta.
Zelaiaren eta aldagelan mantenimentua:	75.000 pzta.
Belarra mozteko eta kanpoa markatzeko makinak:	210.000 pzta.
Jokalariei gastuak:	90.000 pzta.
Urtero, tenporadaren bukaeran egi- ten den Zelai - berritze lana - lurra eta ondarra (100 tonelada) gehia- go zabalduz:	75.000 pzta.
Inprebistoak:	25.000 pzta.
Guztira, orduan, tenporada honetako gastuak, gutxi gorabehera:	940.000 pztakoa da.

Ikusten duzueenez, ez da bromarako kontua, baina, jendeak elkar hartzen duenean honelaxeko gauzak egiten dira. Jendeak honela segitzen badu, guzti hau egokiagotzen eta sendoagotzen joanen da, urtetik urtera, baina, jendeak ez badu erantzuten alferrik ari gara. Hona zenbat egin den jendearen laguntza onari esker. Orain, egindakoa borobiltzen, hobetzen, eta besterik ez bada, mantentzen sailtu behar genuke denok egunetik egunera. Hala izan bedi.

**AURRERAKO
KIROL BATZORDEA**




OHARRA, AZKEN AGUR GISARA:

Egia da bai. Beti bezala, presaka eta muturka egin da Plazaolaren zazpigarren ale hau ere. Azkeneko orduan zirriki zarraka, pesturreko etxe garbiketak egiten diren antzera. Baina, egin egin da, eta egina hor gelditzen da, batentzat ez bada, bestentzat.

Ihauterietan atera nahi omen litzateke zortzigarren alea; ea ordurako jende gehiago biltzen garen, ea Plazaola denona izatea lortzen dugun. Plazaolak, joan etorria egin duen aldiro, ez dio inori aterik itxi, ezta tiketik eskatu ere. Debaldeko trena da hau, eta denei zabalik eskaintzen dena. Beraz, zure ametsak, zure asmoak, zure esan beharrak, zure negarrak, zure atseginak, zure kritikak, zure eritziak, zure kezak... azaldu nahi badituzu, beti gordeko dizu txoko bat Plazaolak. Eta oso pozik gainera. Orduan, ez izan lotsarik, ez izan norik zer esanen duenaren bildurrik. Esatekoak esan, baldin eta herri baten eta gizarte honen hobekuntzan sinesten baduzu. Isilik bazaude berriz, dena ontzat ematen duzun seinalea besterik ez litzateke. Gizakia, zentzumena duenetik, deustarako bada eta, gizarte honen alde txar eta onak aztertze eta erakustera emateko sortu bait zen mundua mundu denetik. Bestela, animalien pareko gineteke. Askotan animalien parera ere iristen ez garela badirudi ere.

Eta luzatu gabe, agurtzeko egin dezagun otoitz: Plazaola, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia, zeruen bezela lurrean ere. Emaiguzu gaur gure eguneko egia, barkatu gure zorrak (eta udaletxekoak ere bai) guk ere gure zordunei barkatzen diegun ezker, eta ez gu tentaldira eramanez (Santiburtzioak Jainkoaren grazian pasa ditzagun) bainan, atera gaitzatzu gaitzetik. Amen.



SARALEGI HNOS.

Jai zoriontsuak opa dizkizue

TEL. 510490

LEIZA

Cafetería

MAZARI

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Elgoien, 6

LEITZA



Construcciones
Azpiroz y Saralegui, S. L.

EDIFICACION
TRAIDAS DE AGUAS
SANEAMIENTOS

JAI ALAI ETA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Te Teléfono 51 02 04 - LEITZA (Navarra)

Vda. de
LAZARO ERVITI

Serrería Mecánica

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel.: 51 00 08 LEITZA

CARPINTERIA ASTIZ

MUEBLES DE COCINA Y ARTICULOS DE REGALO

TEL. 510 285

Jai zoriontsuak opa dizkizue

LEIZA

FONTANERIA GAZTELU s.c.l.

Saneamiento — Cristalería
Especialidad en cocinas de leña
para calefacción
Artículos de regalo

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Teléfono: 51 00 86

Arrandegia Irurak

Pescados frescos
Mariscos

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Elbarren kalea
LEITZA

Tel.: 51 04 91

KORNIETA ELKARTEAK

Iñauteri zoriontsuak
opa dizkizue

LEITZA

TALLER RODRIGUEZ Y ERASO



Servicio RENAULT

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 02 59
Calle Elgoyen, 15

José Echeverría

Peluquería de Caballeros

LEITZA Teléfono 510282

DROGUERIA

PERFUMERIA Y

JUGUETERIA

«GARBY»

Teléfono: 51.01 73 Jai zoriontsuak opa dizkizue



CARNICERIA

PERURENA

Especialidad en
ternera del país
Charcutería

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Teléfono: 51 01 64



Cosme Zabaleta

Ultramarinos

Jai zoriontsuak
opa dizkizue

Teléfono 510306

AUTO ESCUELA PLAZA Gestoria AYALA Seguros "UNION LEVANTINA

Agente: Jose Mari RAZQUIN

Jai zoriontsuak opa dizkizue

C/Obispo Huarte n. 8 tfno: 51 03 38

LEITZA

AZPIROZ ETXEA

JANTZI DENDA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel.: 51 02 46 LEITZA

Electrodomesticos HARITZ

Reparaciones en general
Alta fidelidad
Vídeos etc

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel.: 51 01 57 - 51 00 88

C/ Obispo Huarte - 2

JOSE MIGUEL
URQUIOLA

Productos lacteos

jai zoriontsuak opa dizkizue

LEITZA

NAVARRA

Hotel Basa-Kabi

Restaurante, habitaciones,

SNACK BAR

Jai zoriontsuak opa dizkizue

ALTO DE LEITZA Tel. 510125

BAR GAZTAÑAGA JOSE ANTONIO ESCUDERO

Bocadillos, pinchos calientes, cazuelitas,

Tel. 510424

Jai zoriontsuak opa dizkizue

MAPFRE

MUTUALIDAD DE SEGUROS
Una organización a su servicio

Teléfono: 51 04 99/
Jai zorionsuak opa dizkizue

CAFETERIA PASTELERIA NEKANE

Jai zorionsuak opa dizkizue

LEITZA

LIBURUTEGIA KIROLAK EUZKO

Articulos de regalo,
material deportivo, ect.

Jai zorionsuak opa dizkizue

Tel. 510054

Cerramientos de balcones y terrazas,
fabricación y colocación de ventanas
y puertas de aluminio



ALUBAN
Aluminios Barañain

Polígono Industrial de
BARAÑAIN

Tel. 570059 BARAÑAIN
Tel. 510088 LEITZA
M. ULACIA. NAVARRA

LORETXO

UME ETA
GAZTETXOENTZAKO
JANTZIAK

"KATIA" ARTILEAK
Tiburtzio Deunaren festetan
egun alaiak opa dizkizue

Elbarren, 35. - LEITZA

ARAKINDEGIA JATETXEA

Jai zorionsuak
opa dizkizue

Tel. 510052

ZURGINTEGIA CARPINTERIA TOMAS ALKOZ "MARTIKO"

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE
LEITZA

SOCIEDAD KORNIETA

Jai zorionsuak opa dizkizue
LEITZA

HARATEGIA
URDAITEGIA
J.A. URKIOLA
especialidad en
carne de buey

Jai zorionsuak opa dizkizue
tfn: 51 04 67 LEITZA

Ignacio Arrarás

Bodegón · Vinos, Sidra
y licores

Cervezas El León
Jai zorionsuak opa dizkizue

Tel. 51 03 53

Hermanas Gómez

Comercio de tejidos

Jai zorionsuak opa dizkizue

Teléfono 510130

BAR LEITZATARRA

Desayunos, cazuelitas, pinchos calientes, ect.

Irekita goizeko 7etatik.

Abierto desde las 7 de la mañana.

Jai zorionsuak opa dizkizue

Tel. 510352

BAR RESTAURANTE TXOKO

FONDA PENSION COMPLETA

Jai zorionsuak opa dizkizue

Tel. 510277

LANDA TABERNA

Giro jatorra musika ederra

Jai zorionsuak opa dizkizue

LEITZA

**MANDRILADORA
LEIZA**



S. Coop. Ltda.

Iñauteri zoriontsuak opa dizkizue

Fabrica.
B. estación s/n
Tfno: 51 02 62

LEITZA

**carrocerías
LEIZA**

REPARACION DE CHAPA
PINTURA DE AUTOMOVILES
Jai zoriontsuak opa dizkizue

Carratera a Leizalarrea LEIZA Telefono 51 04 60

**Bar Asador
MENDIZABAL**

Especialidad en chuieta y besugo asados

Cafés - Vinos - Licores

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Elgoyen, 22

LEIZA

Telefono 51 01 28

Jesús Buldain

Carnicería y charcutería

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Telefono 51 01 67

BAR-RESTAURANTE

**SAGASTI
JATETXEA**

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Telefono: 51 00 27

CONSTRUCCIONES

ARIZTIMUÑO HERMANOS

Obras en general y reformas

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Telf.: 51 03 74

LEIZA

**Martin
Lizarraga**

Carnicería y Charcutería

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Telefono 51 02 83

ZUBITUR

RELOJERIA-JOYERIA
ARMERIA - PESCA

Cartuchos especiales para
toda caza, a muy buen
precio

Jai zoriontsuak opa dizkizue

PASTELERIA - GOZOTEGIA

BIKOITZ

ESPECIALIDAD EN TARTAS, PASTELES
Y BOLLERIA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

**El Cine
Parroquial
de Leiza**

Jai zoriontsuak opa dizkizue

**JOSE M.
HERNANDORENA
HUARTE**

Ferretería - Droguería
Artículos regalo
Transporte

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Telefono: 51 00 55

**ASTIZ
Librería y Papelería**

Material escolar y Deportes

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Elbarren 28

Telefono domicilio 51 04 05

LEIZA

**Garage Leiza
(J.E. Ceballos)**

Reparación y engrase en general, del automóvil

Jai zoriontsuak opa dizkizue

C/ Elbarren 77

tfno. 51 04 66

MIGUEL BARRIOLA

Almacén de vinos y licores
Distribuidor de Insaluz
Leche y batidos Gurelesa
Cervezas San Miguel

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Telefonos: 51 03 33 y 51 04 86

FOTO MUGICA

Estudio en
Calle Obispo Huarte

Tel: 51 04 40

Fotos Carnet entrega
inmediata

Fotos Estudio
Ampliaciones
Bodas
Homenajes etc.

Fotocopias en el acto

Mercedería y Lanas GAZTELU

Jai zoriontsuak opa
dizkizue
Elgoyen, 24
LEIZA

COMERCIO FINA

Jai zoriontsuak opa dizkizue
Arrazola, 9

Novedades FLORI

Généros de punto,
corsetería y confección
Jai zoriontsuak opa dizkizue
Tel 50 01 94 Leiza (Navarra)



Hachas Erviti

Viuda de Tomás Erviti
Fábrica de hachas garantizadas
para competición de Aitzkolaris
Jai zoriontsuak opa dizkizue
Teléfono 51 00 60

José Ignacio Arzallus

Carnicería - Charcutería
Quesos del País

Iñauteri zoriontsuak opa dizkizue
LEITZA BERASTEGI
Tf. 51 03 77 Tf. 67 45 34

LORENZO ZUBITUR

TALLER DE CANTERIA
TRABAJOS EN PIEDRA Y MARMOL
REVESTIMIENTO DE FACHADAS DE PIEDRA
ARCOS, ZOCALOS, ESCALERAS
FOGONES "ESTILO VASCO"
CHIMENETAS Y TODA CLASE DE TRABAJOS
EN PIEDRA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Telfnos.: Taller 51 04 47 LEITZA (Navarra)
Domicilio 51 01 11

PESCADERIA ANA
PESCADOS FRESCOS
Y CONGELADOS
DEL CANTABRICO

Jai zoriontsuak opa dizkizue
Tel.: 51 01 18

Zapatería Tirapu

Calzados finos de
Caballero y Señora

Jai zoriontsuak opa dizkizue
Elbarren, 36 Tel 51 00 15

INSTALACIONES ELECTRICAS ARGIZPI

(Fernando eta Juantxo)

Jai zoriontsuak opa dizkizue

LEITZA HUITZI
Telf.: 51 03 92 Telf.: 50 42 53

Gregorio Sagastibelza

Constructor y Albañilería
en general

Jai zoriontsuak opa dizkizue
Tel.: 51 00 59 LEIZA

BAR Merendero Tardoa

Alto de Tardoa
Jai zoriontsuak opa dizkizue

SOCIEDAD D.C.R. GURATZ-MENDI

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Elgoyen, 1 LEIZA

BAR OIALDE

Aperitivos y bocadillos
Cafés, vinos y licores

Jai zoriontsuak opa dizkizue
Telf.: 51 00 77 LEIZA




**zorionezko festak deneri
nafarroako aurrezki kutxa**

felices fiestas

CAJA

**CAJA DE AHORROS
DE NAVARRA**



SARRIÓ

COMPAÑIA PAPELERA DE LEIZA, S. A.

Jai zoriontsuak opa dizkizue
Herritar eta bisatari guztiei

